

## FUNTSEZKO BALIABIDEAK:

Banku Santanderrek mailegu eta kreditu lerro sorta bat eskaintzen du autonomoek eta enpresek funtzionatzeko behar duten dirua izan dezaten, baita negozioa handitu eta hazteko ere.



# Santander

Horrexegaitik, gure enpresa sortzen hasteko gure hasierako finantzazio iturria Santander Bankutik aterako dugu, 30.000 €-ko mailegua eskatuz. Denbora pasa ahala, eta dirua lortzen goazen heinean, irabazitako diruarekin mailegua ordaintzea, enpresa mantentzea eta pixkanaka gehiago garatzea lortuko dugu.

Hortaz aparte, eta enpresaren garapena azkartzeko, dirua lortzen hasten garenean gure aurrezkietatik 20.000€ aterako ditugu enpresan inbertitzeko.

Lokal bat izango dugu hiri garrantzitsuetan, adibidez Madril, Bartzelona, Bilbon... Madrilen izango dugu gure lokal nagusia, beraz, bertan erosiko dugun leku bakarra izango da. Beste lekuetan alokatuko ditugu.

Furgoneta erabiliko dugu produktua helarazteko bezero edo kontsumitzaileari.

Ordenagailua, hainbat gauzetarako erabiliko ditugu. Alde batetik, gure web orritik eskaerak ebegiratu eta eramango ditugu, beste alde batetik, programazioak enpresa gidatzeko hor izango ditugu.

Altzarietan produktua gordeko dugu.

